Bilbo Hiriko Bioaniztasun Erronka

Agenda 2030ko arduradun agurgarriak,

Ricardo Mutuberria naiz, Biook.org elkartearen sortzailea eta zuzendaria. Zuekin harremanetan jartzen naiz **Bilboko biodibertsitatea mapatzeko eskolarteko proiektu** pilotu batean parte hartzeko aukera aurkezteko. "Bilbo Hiriko Bioaniztasun Erronka" proiektuan parte-hartzea **doakoa da,** Bilboko Udalaren Jasangarritasun, Mugikortasun eta Klima Aldaketa 2022 programa dirulaguntzari esker.

BIOOK Elkartea
BIOOK irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Zientzia irekia, herritar zientzia eta biologia komunitario mugimenduen abangoardian gaude. Zientzialariak eta bideratzaileak gara. Alfabetizazioa nahiz kultura zientifikoa, gizarte- eta hezkuntza-berrikuntza bultzatzen ditugu, zientzia erreal eta parte-hartzailea egiteko ekipamendu, tailer, ikuskizun, ekitaldi eta proiektu eskaintza baten bidez.

Zer da "Bilbo Hiriko Bioaniztasun Erronka"?
Herritarren zientzia proiektu bat da, Agenda 2030 barruan dauden Bilboko ikastetxeei zuzendua. Ikastetxeen parte-hartzearen bidez Bilboko bioaniztasun ahalik eta datu gehien biltzea lortu nahi dugu.

Zertan datza proiektua?
Prestakuntza-jardunaldi bat burutu ondoren, ikasleek hilabete bat izango dute bere mugikorrera deskargatu duten aplikazio batetara ahalik eta espezie gehien igotzeko. Horretarako, animalia, landare, onddo, liken eta abarren espezieen argazkiak hartu eta igo beharko dituzte ikastetxe bakoitzerako aplikazioan sortutako proiektura. Proiektuak eremu geografikoa eta datuak biltzeko denbora mugatzen ditu.

Zein helbururekin?
Parte hartzen duten ikasleek beraien mugikorra erabili ahal izango dute zientzia eta naturalismo digital proiektu batean. Bertako ekosistemak, bizi diren espezieak eta haien historia naturala ezagutu ahal izango dituzte. Aplikazio mugikorrean bildutako datuak oso erabilgarriak dira, erregistratuta geratzen baitira, naturalista afizionatu eta profesionalen komunitate handi batekin partekatuz. Proiektu honen bidez, natura gazteengana hurbildu nahi dugu, biodibertsitatearen eta ingurumen-osasunaren garrantziari buruzko kontzientzia sortuz, teknologia berriak modu kolaboratiboan helburu zientifiko eta hezitzaileetarako erabiliz.

Zer eskaintzen dugu?

1. Prestakuntza: Prestakuntza aurrez aurre eta modu praktikoan eskainiko dugu. Hurrengo edukiak aurkeztuko ditugu:

❖ Edukin orokorrak:
- Herritar zientzia
- Bioaniztasuna
- Larrialdi klimatikoa, habitatak suntsitzea, ingurumen-osasuna eta biodibertsitatea
- Bioaniztasunaren kontserbatzea eta berreskuratzea
- Zer da eta zelan parte hartu proiektu honetan

❖ Aplikazioa:
- Nola deskargatu eta erabili aplikazioa
- Nola atera kalitatezko argazkiak
- Nola igo argazki eta datuak behar bezala zure eskola proiektura
- Nola erabili aplikazioa informazio-iturri gisa
- Nola lortu emaitzarik onenak

2. Segimendu eta Ebaluazioa:
BIOOK Elkartea ebaluazioa eta emaitzen aurkezpena egingo ditu. Proiektuaren eragina eta inpaktua aztertuko dira, baita ere ikastetxe bakoitzak lortutako emaitzak (igotako behaketak eta identifikatutako espezieen kopurua).

Prestakuntza nori zuzenduta dago?
Prestakuntza **ikasleei** zuzenduta dago. Ain zuzen ere, ikastetxean proiektuaren arduradun gisa jarduteko interesa agertzen duten ikasle-talde bati. Prestakuntza jasotzen duten ikasleek informazioa eta parte hartzeko jarraibideak helarazi beharko dizkiete ikaskideei. Ikastaro/klaseak ere gure prestakuntza zuzenean jaso dezakete beharrezkoa balitz.

Interesa duten irakasleek parte hartu ahal izango dute prestakuntzan, proiektuaren dinamizatzaile gisa lagundu ahal izateko.

Nork har dezake parte?
Nahi duten **ikasle guztiek**. Kameradun mugikor edo Tablet bat izatea, aplikazioa deskargatzea eta erabiltzaile gisa izena ematea baino ez da beharrezkoa.

Noiz hasiko da?
Biodibertsitateari buruzko datuak abendu osoan bilduko dira. Prestakuntza jardunaldi batean burutuko da, datuak hartzen hasi aurreko bi asteetako edozein egunean. Ikasleek biodibertsitateari buruzko datuak bilduko dituzte aisialdian. Zentroak irteera antolatuak programatu ditzake datuen bilketa bultzatzeko.

Jardueren egutegia:
Azaroaren 8tik 15era: Parte hartuko duten ikastetxeen hautaketa.
Azaroaren 15tik 28ra: Aurrez aurreko prestakuntza.
Abenduaren 1etik 31ra: Espezieak identifikatzeko epea.
Urtarrilak 1-31: Ebaluazioa eta emaitzen aurkezpena.

Nola parte hartu dezake zure zentroa?
Erantzun mezu elektroniko baten bidez zure interesa erakutsiz. Aipatu mesedez telefonoz elkarrizketa bat izateko dauzkazun aukerak ostirala 10tik aurrera.

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

biook
Biology by & for the people